

Jane Goodall

Londres (Erresuma Batua)
1934-2025




“Hemen gaude,
inoiz izan den espezierik adimentsuena.
Eta nola da posible dugun planeta bakarra suntsitzea?”

Primatologoa

Txinpantzeen portaera ikertzen aitzindari izan zen; haren behaketek erakutsi zuten animaliek ahalmena dutela tresnak erabiltzeko eta harreman konplexuak garatzeko. Naturaren eta animalien defentsan erreferente izan da.

Mari Luz Guenaga Gómez

Eibar (Gipuzkoa)
1975



“Teknologiak
ezagutza eta sormena batzen ditu,
pertsonek bizitza eta gure planeta hobetzeko.”

Informatika-ingeniaria

Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea da. Haren ikerketa-ildo nagusiak dira teknologia hezitzailea, pentsamendu konputazionala eta pertsona-ordenagailu interakzioa. Emakumeek zientzian duten ikusgarritasuna eta partaidetza handitzeko ekimenak sustatzen ditu.

Ola Arafat

Gaza (Palestina)

1977



“Zientziari esker,
nire giza laguntzak bihotza ez ezik
norabidea, indarra eta itxaropena ere baditu.”


Farmazialaria eta ekintzailea

Nafarroan bizi da, eta elikagaien kalitatea eta ingurumenaren zaintza hobetzen dituen bioteknologia-enpresa bat zuzentzen du. Bere lanagatik zein migratzaileen eta Palestinaren aldeko aktibismoagatik zenbait sari jaso ditu. *Salam Gaza* erakundeko lehendakaria da.

Marie Anne Gillain Boivin

Versailles (Frantzia)

1773-1841



“Beste herrialde
batzuetan gizonak bakarrik egiten
zituzten kirurgia-tratamenduak egiten nituen.”

Emagina eta asmatzailea

XIX. mendeko emagin garratzitsuenetako bat izan zen. Tresna obstetrikokoak asmatu zituen, hala nola pelbimetro baginala, zeinak laguntzen baitu bagina dilatatzeko eta erditzean umetoki-lepoa miazten. Estetoskopia erabiliz fetuaren taupadak entzuten lehenetakoa izan zen.

Yásnaya Aguilar Gil

Ayutla Mixe (Mexiko)

1981



“Hizkuntzak
ez dira berez hiltzen;
erail egiten dira.”

Hizkuntzalaria

Mixe hizkuntzaren eta kulturaren defendatzaile sutsua da. Hizkuntza gutxituen biziraupena eta eskubide linguistikoak babesten ditu, estatuen jarrera homogeneizatzaileak eta indigenen aurkako injustiziak aztertuz eta gizarteratuz.

Elisabeth Rasekoala

Lagos (Nigeria)

1960



“Ez dago inor
manipulatzen errazagorik
ezagutzarako aukera ez duen hori baino.”


Kimika-ingeniaria

Industria petrokimikoan izandako esperientziak bultzatu zuen zientziaren ikuspegi eurozentrikoaren eta maskulinoaren aurka borrokatzera. *African Gong* erakundea sortu zuen, emakumeek eta etnia gutxituek zientzian parte hartu dezaten sustatzeko. Nazioarteko erakunde nagusien aholkularia da.

Amaia Ortiz Barredo

Gaubea (Araba)

1965



“Irekitzen
ditugun bide
berritzaileek porrot
egiten badute ere, ezagutza
izango dugu bide horiek zuzentzeko.”


Fitopatologoa

Aditua da landareen gaixotasunetan. Neiker-BRTA Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundean lan egiten du. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak “Kide oso” izendatu du nekazaritza-laboreen osasunari egindako ekarpenengatik.

Ruby Payne-Scott

Grafton (Australia)

1912-1981



“Tira, ez du zentzurik.
Egunero igotzen gara
eskaileretara eta antenetara.
Ez naiz eskailera batera igoko gona jantzita.
Praka motzak askoz ere egokiagoak dira guretzat.”


Fisikaria

Emakume aitzindari honek Eguzkiaren erupzioak ikertu zituen haren emisio-uhinak aztertuz. Komunista, atea eta aktibista feminista sutsua eta ausarta ere izan zen.

Hong Wang

Guilin (Txina)

1997



“Zein da espaziorik txikiena
orratz batek biratu dezan
bere posizioa alderantzikatu arte?”

Matematikaria

XXI. mendeko matematikako lorpen handienetako bateko protagonista izan da. Kakeyaren aierua ebatzi du, zeinak ahalbidetu baitu espazioaren eta mugimenduaren arteko harremana modu berritzailean ulertzea.

Lourdes Herrasti Erlogorri

Aretxabaleta (Gipuzkoa)

1958



“Goi Paleolitoko indusketa batean, ez daukazu sentimendurik inguruan. 36ko gerrako indusketa batean, familia hor dago; sentimenduak hor daude. Sentsazioak desberdinak dira.”


Historialaria eta antropologoa

Aranzadi Zientzia Elkarteko ikertzailea da. Gerra Zibileko eta frankismoko deshobiratze-lanetan eta memoria historikoaren arloan lan nekaezina egin du, biktimei eta haien senideei duintasuna eta egia itzultzeko helburuarekin.

Rebecca Lee Crumpler

Christiana (AEB)

1831-1895



“Gazterik
sortu zitzaidan
besteen sufrimendua arintzeko nahia
eta horretarako aukerak bilatzekoa.”

Medikua

AEBko lehen emakume mediku afroamerikarra eta liburu mediko bat argitaratzen lehena. Osasun-arreta emakumeentzat eta komunitate beltzentzat eskuragarri jartzearen alde jardun zuen, baita ordaindu ezin zutenentzat ere.

Olatz Ortega Vidales

Bilbo (Bizkaia)

1997



“Planetarekin sinbiosian
bizitzea proposatzen dut:
bakterioak bezala, sareak ehunduz eta
transfeminismotik zientzia askatzailea eraikiz.”

Ekotoxikologia

Plentziako Itsas Estazioan dihardu eta euskal hondartzetako mikrobiodibertsitatea eta mikroplastikoak ikertzen ditu. Zientzia inklusiboagoaren eta demokratikoagoaren alde lan egiten du herritarren zientzia-proiektuak sustatuz.